

ZERGA ETA TASETAN ONARTUTA DAUDEN HOBARIEN ZERRENDA

ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA	
-Obra berrikoak nahiz eraberrikuntzakoak, urbanizazio, eraikuntza eta sustapen inmobiliarioko enpresek egiten duten jardueraren xede direnean	%50a
-Familia ugariak	%60: 3 seme alaba %70: 4 seme alaba %80: 5 seme alaba
-Babes publikoko etxebizitza berriak, 3 urtez	%50a
-Eguzki energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatuta dituzten ondasun higiezinatarako	%50a
-Eusko Jaurlaritzaren Bizigune programa edo antzekotan dauden ondasun higiezinak	%50a
IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA	
-Ibilgailu hibridoek, 4 urtez	%50a
-Motor elektrikoa duten ibilgailuei, 4 urtez	%95a
-Ibilgailu historikoetarako edo fabrikazio egunetik kontatuta gutxienez hogeita hamar urteko antzintasuna duten ibilgailuetarako	%50a
-Bost plaza edo gehiago eta 16 zaldi fiskal baino gutxiago dituen ibilgailuei, baldin eta horren titularra familiako kide bat bada, familia hori ugaritzat hartzen denean indarrean dagoen legeriaren arabera	Maila orokorra %50 Maila berezia %75
IHARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA	
- Maiatzaren 22ko 2/1997 Foru Arauak, Kooperatiben Zerga Erregimenari buruzkoak, kooperatibei, horien elkarte, federazio eta konfederazioei eta eraldaketarako nekazaritza sozietateei aplikatzeko jasotzen duen hobaria.	- %50 -2 urtetan
-Jarduera garatu den bigarren zergaldia amaitu ondorengo lehen bost urteetan, edozein jarduera ekonomiko hasi eta gutxienerako udal kuota ordaintzen dutenentzat.	-%25 gero
ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA	
-Eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.	%95

- Eraikuntza, instalazio edo obretan eguzki energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikoa ahalbidetzen duten sistemak ezartzen badira. Hobari hori aplikatuko bada, beroa sortzeko instalazioek Administrazio eskudunak homologatutako kolektoreak eduki behar dituzte.	%95a
-Eraikuntza, instalazio edo obrek pertsona ezinduen irisgarritasun eta habitagarritasun baldintzak errazten dituztenean.	%90a
-BPO eraikuntzak eraikitzeke obrak	%50a
HIRILURREN BALIO GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA	
-Ordainik gabeko eskualdaketak edo eraketak badira eta ondorengo ahaideen, adoptatuen, ezkontideen edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legeak jasotako izatezko bikote lagunen, aurreko ahaideen edo adoptatzaileen alde egiten badira heriotza dela-eta.	%50a
ZABOR TASA	
-Mankomunitateak bultzatutako auto-konpostatze eta auzo-konpostatze programei atxikitako erabiltzaileentzat %20ko hobaria.	%33a
-Aurretik langabezian egon eta Villabonan erroldatutako langile berriak gutxienez 6 hilabetetarako kontratatzen dituztenei.	%100a
HIRIGINTZAKO LIZENTZIAK	
-Babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeari dagokionean, obratarako lizentziari nahiz lehen erabilerarako lizentziari	%50a
OLAEDERRA KIROLDEGIKO TASAK	
-Familia ugariak	%40a
-Lanbide arteko gutxieneko soldatara iristen ez diren bizikidetza unitateko kideak	%90a
UDAN JOLASEAN	
-Lanbide arteko gutxieneko soldatara iristen ez diren bizikidetza unitateko kideak	%90a